

2019-20204  
ZABALGANA BHIko  
**Irakurketa-plana**

*“Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako”*,  
J. Sarrionandia



# IRAKURKETA-PLANA

## AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. HELBURU OROKORRAK	4
3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	6
3.1. HELBURUAK	6
3.2. EKINTZAK	7
4. EBALUAZIOA	9
5. ERANSKINAK	10

## 1. AURKEZPENA

Gaur egun, kanal eta jatorri ezberdinetatik, hainbat hizkuntzatako mezuak irakurtzen ditugu etengabe, eta, sarritan, aldi berean; argazkiak, irudiak, seinaleak, infografiak, gorpuzkerak, begiradak, letrak... Unean uneko helburua izaten du irakurketak, baina mezua ulertzearena da jomuga nagusia.

**Irakurketa**, eskola eremuan edo kanpo, ezagutza garatzeko eta ikasteko funtsezkoa da; esparru akademikoan zein kanpo, irakurtzea ohi da ezagutzak transmititzeko eta jasotzeko bitarteko nagusia. Izan ere, **idatzizkoaren ulermena** (irakurmena) behar bezala garatuta ez izatea eskola porrotaren gakoetako bat izan daiteke, norbanakoaren garapen kognitiboa oztopatzeaz gainera.

Ikasleak bizitzarako prestatzeko bidean, eskolan testuak irakurtzen i(ra)kastea oinarritzkoa da; etorkizuna, mundua eta bizitza *irakurtzen* (interpretatzen/ulertzen) laguntzeko.

Horiek azken asmo izanda, Zabalgana BHI institutuko **Irakurketa-Plana ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzeko** eratu da, eta, bidenabar, “ahozko komunikazio-gaitasuna, hitzik gabeko komunikazio-gaitasuna eta komunikazio-gaitasun digitala lortzeko bidean egundoko lagungarria ere” izan daitekeela ahaztu barik, *Irakurgune*-ko gidalerroetan jasotzen den legez; idatzizkoaren “ulermenezko ekintzak estu lotuta baitaude beste **hizkuntza-gaitasunekin** eta elkarri eragiten baitiote: **irakurri** egiten da eta gero **idatzi**, irakurritakoari buruz **hitz egiteko** irakurtzen da, ahozko aurkezpena prestatzeko irakurtzen da...”. **Irakurketa-planak oro har irakasleek** egiten duten lana gidatuko du, eta **hezkuntza-komunitateko gainerakoen parte-hartzea** bultzatzeko ekintzaren bat ere jasotzen du.

Hala, plan honetan jasotzen dira Zabalgana BHI institutuak bere ikasleen irakurtzeko gaitasuna garatzeko eta hobetzeko asmoz osatutako jarraibideak, eta horiei emango dien tratua honen bitartez antolatuko, artikulatuko eta egituratuko da. Ibilbide akademikoa amaitzean, Zabalganako DBHko ikasleak euren adinari dagozkion giza garapenerako eta bilakaera profesionalerako beharrezkoak izango diren hizkuntz gaitasunen jabe izatea da helburu nagusia; idatzizkoaren ulermenari dagokienez: Irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri, irakurzaletasuna bultzatu, irakurtzeko konpetentzia ebaluatu...

Irakurtzea, hizkuntzen ikasgaietakoak ez ezik, jakintza-arlo denetako ikasbideak barneratzeko bitartekoa izanda, **i(ra)kasgai-arlo denei begirako jardunbideak, proposamenak eta ekintzak** jasotzen ditu Irakurketa-Planak.

Horrez gainera, arreta ipiniko da **Teknologia Berriek** eragindako irakurketa-modu berriak lantzean ere, eta, bereziki, ekintzen eta testuen aukeraketa **hizkuntz zein kultur aniztasuna** kontuan hartuz eta **genero-ikuspegiaren** araberrako irizpideak erdigunean ipiniz egingo da.

Horrengatik guztiagatik, eta horiek denak oinarri eta helburu izanda:







ARGAZKIA (EGILE-ESKUBIDEA): © ISEBA

## 2. HELBURU OROKORRAK

Helburu orokorrak hurrengo hauek izango dira (besteak beste, [Irakurgune](#), 2019):

- Ulermena lantzea eduki berriak ikasteko oinarri gisa (hizkuntzetan eta gainerako ikasgai-arloetan). Ikasleak **testuak ulertzeko eta irakurritakotik informazioa ateratzeko gai izatea, testuak espezifikatzea, zentzu orokorra hartzea eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, interpretatzea eta formaz** nahiz edukiz aztertzea.
- Gazte eta nerabeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzea. Literatur-testuek ematen duten gozamena ulertu, interpretatu eta gozatzeko gai izatea, irakurtzea **disfrutatzen eta denbora gustura pasatzeko** beste aukera bat izateko.
- Irakurketa informazio eta entretenimendu abiapuntua aintzat hartzea.
- Irakurtzeko gaitasuna hobetuta, ikasleen **ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasuna** ere hobetzea.
- **Liburutegiak** esparru bezala dituen funtzioak ezagutaraztea; berori osatzea, erabiltzeko **aukerak zabaltzea**, liburuak “-tegi”-tik kanpo ateratzeko eta gozatzeko aukerak zabaltzea (maileguak; udako irakurTERRAZAK jolastokian).



ARGAZKIA (EGILE-ESKUBIDEA): © ISEBA

**IRAKASLEAK**

Eztabaidatu, erabaki,  
jardueren  
ardura hartu, aplikatu  
eta ebaluatu



**IRAKURKETA PLANAREN  
ARDURADUNA**

Irakurketa Plana garatu  
eta proposamenak egin



**ZUZENDARITZA**

Antolatu eta planifikatu

### **3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleak irakurle konpetente bihurtzeko nahitaezkoak dituen gaitasunak lantzen dira, ez bakarrik hizkuntza-arloetan baita gainerakoetan ere. Horretarako, batez ere, honako atal hauek jorratuko dira: edozein testu motaren informazio orokorra atzematea, ulertzea: zentzu orokorra hartzea eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea; testuaren formaren eta edukiaren gaineko gogoetak egitea, eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.

#### **3.1. HELBURUAK**

- Eremu askotako testu idatziak (gazte-literatura, literatura klasikoa, komunikabideak, zientzia-dibulgaziozkoak, eta beste hainbat jakintza-arlotako eta abarretako testuak) ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.
- Literatura lanez gozatzea, ereduak testuak (irakasleak aurrez hautatuz proposatutakoak) eta norberak aukeratutako testuak (gelako eta institutuko liburutegia) irakurriz.
- Literaturaren bilakaera historikoaren oinarriko sasietako hainbat lan irakurtzea, ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko jarduerak antolatzea (esaterako bikoteka irakurri, *book trailer*ak egiten ikasi eta sortzea, hainbat hizkuntzetako poesia-errezitaldiak (bideoz), liburu-maileguak, liburutegia jolastokira atera/hurbildu, eta abar).
- Irakurketa modu egokian gauzatzeko intonazioa, erritmoa eta ahoskera zaindua modu zuzenean egitea.
- Etxean, familian irakurketa lantzea sustatzea.
- Teknologia Berrien erabileraz baliatuz, kultur eta hizkuntz askotarikotasuna eta genero-ikuspegia uztartuko dituen testuen irakurketa bultzatzea.

### 3.2. EKINTZAK

- Ikasgai-arlo denetan mota ezberdinetako testuak irakurriko dira (zientifikoak, dibulgaziozkoak, biografiak, narrazio-testuak, olerkiak, komunikabideen jatorrizkoak -artikuluak, albisteak, elkarrizketak- eta abarrak), jakintza-ikasgai bakoitzeko eduki berriak jorrazteko, arloari dagokion testuinguruan (hala nola, literatur obrak, testu historikoak, testu zientifikoak, eta abarrak) ulertzeko eta, kasuan kasu, ikuspegi kritikoz interpretatzeko.
- Euskara eta Gaztelania arloetan, komunikabideen jatorriko eta gazte-literaturako zein literatura tradizionalako lanak (ikasleen adinari eta interesei egokituak) irakurriko dira eta horien ulermena lantzeko jarduera desberdinak egingo dira (proba idatziak, azterketak edo laburpenak, ahozko aurkezpenak, eta abarrak).
- Gaztelania eta Euskal Literaturako obra ospetsuak irakurri eta interpretatuko dira norberaren kultur identitatea eraikitzeko.
- Hainbatetan komikiak ere kontuan har daitezke irakurtzeko.
- Jakintza-arlo denetan ikasleek ozenki irakurriko dituzte egokitutako testuak, eta eginkizun horretarako beharrezkoak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa landuko dira.
- Arlo bakoitzean arloko emakumezko esanguratsuei buruzko testuak irakurriko dira, eta horien ulermena lantzeko eta ebaluatzeko jarduerak edo atazak egingo dira (Egia/Gezurra probak; Aukera askeko probak, etab.).
- Zientzia-arloko edo Arte-Plastikoetako ikasgaietan mota ezberdinetako testuak irakurriko dira. Arreta berezia eskainiko zaio emakume zientzialarien edo artisten biografiak edo haiei egindako elkarrizketak irakurtzeari, eta horien ulermena lantzeko (eta ebaluatzeko) jarduerak egingo dira.
- Kirol-arloko ikasgaietan ere irakurketa lantzeko jarduerak garatzea gomendatzen da; kirolariei (emakumeen) elkarrizketak edo kirol-albiste garrantzitsuak, besteak beste.
- Irakurzaletasuna modu erakargarrian bultzatzeko ekintzak antolatuko eta ekimenak martxan ipiniko dira: IrakurTERRAZAk;; *book trailer*-ak sortzeko jarduerak egin eta lehiaketak sustatu; ipuin-olerki xuxurlatuak...
- Institutuko liburutegian, aldizkariak, liburuak, eta abarrak ipiniko dira, non ikasleek aukera izango duten liburuak maileguan hartzeko (3 asteko epean, luza daitekeena). Maiatza-ekaina aldean, IrakurTERRAZAk ekimena martxan ipintzeko ahalegina egingo da (barruko liburutegi-zerbitzuaz gainera, liburuak eta prentsa jolastokian irakurtzeko gunetako bat eratzeko aukera aztertuko da).
- Irakurketa-mota ezberdinak ezagutaraziko dira; eta horiek zein euren



helburu-funtzioak jasotzen dituen horma-irudia ipiniko da liburutegian.

- Ikasleek gomendio-fitxa bete ahal izango dute:
  - Irakurritako liburuaren balorazio orokorra
  - Iradokizu-txokoa
  
- DBHko 3. mailetan asteen behin 1. klaseko 55 minutuan irakurketa egingo dute (ebaluazio denetan).
- Antolatuko den IV. Ipuin-lehiaketan ikasleen parte-hartzea bultzatuko da (batez ere, hizkuntza-ikasgaietako irakasleek).
- Irakurritako liburuarekin lotutako filma edo ikus-entzunezkoren bat ikus daiteke, aurretik (testuingurua emateko) edo ostean (ondorio edo aldaera bezala). Ikasleei aukeraketa eurek egiteko aukera emango zaie.
- Irakurritako zientzialarien, artisten edo idazleen biografiak edo elkarrizketak kontuan izanda, horien argazki eta azalpen-testuekin euren berri zabaltzeko ekimenak (adib.: kartelak) egin.
- Etxean eta familian irakurtzearen garrantziaz ohartarazteko eta familien parte-hartzea bultzatzeko ekintzak bideratuko dira, esaterako: gurasoei gomendio-zerrenda helaraziko zaie; hainbat hizkuntzako poemak errezitatzea (grabatu) eskatuko zaie DBH 3. mailako ikasleen senideei, euskarazko itzulpenarekin batera institutuan entzun-zabaltzeko.



ARGAZKIA (EGILE-ESKUBIDEA): © ISEBA

**4. EBALUAZIOA**

Irakurketa-plan honen helburuak betetzen diren neurtzeko item batzuk proposatuko dira ondoren, institutuko oroitidazkian txertatzeko eta Planaren beraren nondik norakoak neurtzeko:

ITEMAK	BAI	EZ	HOBEKUNTZA
Irakurketa lantzeko egindako metodologia egokia izan da.			
Landutako ekintzak egokiak izan dira.			
Ikasleek euren mailari egokitutako ulermen-maila lortu dute.			
Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko ekintzak egokiak izan dira.			

HELBURUA:				
	Betetze-maila	Eraginkortasuna	Alde azpimarragarriak	Hobetu beharrekoa
1. jarduera				
2. jarduera				
3. jarduera				

Ikasturte amaieran, ezinbestekotzat jotzen da Irakurketa-planak aurreikusitako dituen puntuak bete diren egiaztatzea eta behar izango dituen moldaketak edo egokitzapenak egitea. Izan ere, irakurketa lantzeko modu eta ekimen asko jorra daitezke, teknologiak berrikuntza asko eta handiak dakarzkigun bezala, irakurzaletasuna eta idatzizkoaren ulermena lantzeko bide berriak ere sortu dira eta. Hala, horiek kontuan izanda, Planak malgutasunez jokatu beharko du uneko beharrezanean erantzuna emateko.

**5. ERANSKINAK****5.1. Irakurketaren inguruko praktika –didaktikoen analisisa: Emaitzak**

	Ondo egiten dena	Hobetu beharrekoa
IKASTEKO IRAKURRI Hizkuntza-arloak Gainerako arloak (Hizkuntzakoak ez direnak) Eskolako liburutegia IrakurTERRAZAk		
IRAKURZALETASUNA GARATU Hizkuntza-arloak Gainerako arloak (Hizkuntzakoak ez direnak) Eskolako liburutegia IrakurTERRAZAk		
FAMILIEN PARTE-HARTZEA		
INGURUAREKIKO LOTURA		
IRAKURKETAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA		

5.2. Irakurketa-Plana osatzeko erabili diren **erreferentziak** eta berau **garatzeko** interesgarriak izan daitezkeen **iturriak eta proposamenak**:

**Irakurgunea**

<https://irakurgune.euskadi.eus/eu/>

**Zientzia alorreko irakurgaiak eta atazak:**

- [Emakumea zientzian - EHU](#)  
Emakume zientzialarien biografia laburrak (jarduera eta ulermen ariketak):  
<http://www.ehu.eus/astronomasbilbao/AAstronomasEU.pdf>

- **Historiak ahaztutakoak**

Goizalde Landabaso kazetariak *Berría* egunkarian argitaratutako iritzi-artikula irakurri eta galderei erantzun.

[http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/atazak-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_Ta0p&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_count=1&groupId=10138&articleId=2136058](http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/atazak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_Ta0p&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=2136058)

- <https://b08berritzegunea.eus/2019/02/06/emakume-eta-neskazi-zientzialarien-nazioarteko-eguna-dia-internacional-de-la-mujer-y-la-nina-en-la-ciencia/>
- <https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/mujeres-cientificas-aula/70277.html>
- <https://11defebrero.org/category/materiales/>

*Book trailer*-ak (ereduak, lehiaketak, ikastaroak):

- [www.kalabazan.com](http://www.kalabazan.com)
  - [Ipuin-poesia xuxurlatzeko proposamena](#)
- <https://www.galtzagorri.eus/liburu-gaztea/2019-2020/>

Irakurketa sustatzeko Lezoko herri-eskolaren gurasoentzako gomendio-zerrenda:

<http://www.lezoherrieskola.eus/irakurtzeko-zaletasuna-sustatzeko-gomendioak/>